

## GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak Gobernu zentralarekin, toki-erakundeekin, enpresarioekin eta sindikatuekin elkarlanean ariko da ezkutuko ekonomiaren aurka borrokatzeko

*Planak informazio-trukea eta sentsibilizazio nahiz informazioko programa bat aurreikusten ditu egoera irregularrak hauteman eta prebenitzeko*

Martes, 11 de diciembre de 2012

Nafarroako

Gobernuak [erakundeen arteko akordioa](#) izenpetu du gaur Estatuko Administrazio Orokorrarekin, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin eta Foru Komunitateko eragile ekonomiko eta sozial nagusiekin (Nafarroako Enpresarioen Konfederazioa eta UGT eta CCOO sindikatuak) ezkutuko ekonomiaren aurkako

eta Nafarroako deklaratu gabeko enpleguaren aurkako borrokan elkarlanean aritzeko.

Planak jarduketa orokorreko programa bat aurreikusten du, eta kontrolatu eta zehatu ez ezik, egoera horiek sentsibilizazioaren bidez prebenitzea bilatzen du. Zehazki, lankidetzaz hitzarmenak sinatuko dira erakunde publikoen artean deklaratu gabeko jarduera ekonomikoak hautematen laguntzeko; eta enpresetan informazioko eta sentsibilizazioko kanpainak abian jarriko dira deklaratu gabeko enpleguak sortzen duen "arazo sozial larria"-ren inguruan sentsibilizatzeko asmoz.

Erakunde sinatzaileek irizten dute ezkutuko ekonomia "kaltegarria" dela diru-sarrera fiskalak sortzeko eta lan-legeriari egiten zaion "iruzurra" egiten zaiolako; izan ere, jarduera "gardentasunez" aurrera eramaten duten enpresei kalte egiten die, zerbitzu publikoak mantentzen lagunduz, eta kaltetutako langileei, beren alde legeztatutako lan-jarduerak sortzen dituen "legezko eskubideak" kenduz.



Ezkerretik eskuinera: Goyen, Herrero, Alba, Barcina, Goicoechea, Sarría eta Molinero.

## Akordioa Foru

Gobernuaren egoitzan izenpetu dute Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak; Nafarroako Gobernuaren ordezkari Carmen Albak; Nafarroako Udal eta

Kontzejuen Federazioko lehendakari Mariano Herrerok; Nafarroako Enpresarioen Konfederazioko lehendakari José Antonio Sarríak; eta UGT nahiz CCOO sindikatuetakoko idazkari nagusi Juan Goyen eta José María Molinerok. Lehendakariarekin batera izan da Gobernuko lehen lehendakariorde Lourdes Goicoechea.



Barcina Lehendakaria ezkutuko ekonomiaren aurkako akordioa sinatzen.

### **Ezkutuko ekonomiaren aurkako ekintzak**

Erakunde sinatzaileen arteko elkarlana bost ekintzetan zehazten da. Lehen hirurek erakunde publikoen arteko lankidetzaz hitz egiten dute deklaratu gabeko jarduera ekonomikoak hautemateko. Zehazki, aurreikusten da Nafarroako Zerga Ogasunak akordioak gauza ditzala Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzarekin (Gobernu zentralaren mende dagoena) eta toki-erakundeekin informazioa trukatzeko, eta Nafarroako Gobernuak lankidetzarako protokolo bat abian jar dezala departamentu, zuzendari nagusi eta erakunde autonomoen artean.

Bestalde, informazio-kanpaina bat eta sentsibilizazio-plan bat sustatuko dira, eragile ekonomiko eta sozial sinatzaileen partaidetzarekin, eta hiru mailatan garatuko da: enpresarioak, langileak eta herritarrak, oro har. Haien helburua ezkutuko ekonomiak zer inplikazio sozial dituen jakinaraztea da.

Gainera, aurreko akordio eta protokoloetatik ateratako informazioa, garrantzitsua gerta daitekeena lan-betebeharrak betearazteko deklaratu ahal izan ez diren jarduera ekonomiko eta profesionalak hautemateko orduan izan dezaketen eraginkortasunari dagokionez, Nafarroako Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren Lurralde Zuzendaritzara igorriko da dagozkion ekintzak har ditzan.

Azkenik, akordioaren esparruan lan-taldea osatuko da, eta hasitako lankidetzan eragile berriak sartzeko aukerari buruz sakonduko du eta baita sentsibilizazioko beste jarduera batzuei buruz ere. Gainera, jarduerak koordinatzeaz eta haien aplikazioa ebaluatzeaz arduratuko den batzorde misto bat ere sortuko da.